# EUSKAL ORRIA

IRITZIAK

## LANGILLEAREN EGUNA

Ez da nunduan, askorentzat, barau egun bat noiz eta nola egin agindu dezakenik. ¡Aita Santua! ¿Nor da Aita Santua gauza oetan sartzeko? ¡Ez guri Jainkoaren izenean ezer agindu!

Eta eranegun, bezperako ogi zafa jan erazi ez didate ba. Defior gañera. Ez Elizak barau egunak egin erazten dizkidan bezela: bere aginduak bete ala austea nere gain utzirik. Nai badek eta nai ez badet ogi zafa jan bear.

Osasunerako txit ona omen da. ¡Bai barauak ere! Ta Ostiral Deunez, aragi ta afaia nastuan panpafoikeri bizian jan oi zuten aiek, ostiralean guziak ogi zafakin euki arazi. ¡Aita Santua nor da ba?

—o—

Gelditu ziteken guzia, guzi-guzia gelditu zan. Igandean bear-beafeko lanak izaten dituztenak ere, ostiralean geldi ikusi genitun. Etzan Donosti kalean ez ber'bil, ez tximisburdi, ez kalegarbitzale, ez iñolako langilerik ikusten. Jakidendak, sendakai-dendatarofioak, guzia itxita. Kafe, bar eta tabenak ere bai. Baña ilunabafean moskofa ugari zan. ¿Nun egonda? ¿Elizan?

—o—

Eguartean egin zan langile-"manifestazioa".

Pake-pakean. Ezta afitzekoa. Norberak nai duana esaten utzi ezkero pakean ibili bear.

Eta aurten aufeneko urtea nola baitzan pafez artu genitun "Itaia ta Malua"tiko ikufin atzetik, aufesku doñuarekin nik al dakit zer abesten zuan gazte talde ura. Eun bat izango ziran, geiago ez. Eta beste guziak ixildu afen, aiek ukabilak gora jasota abesleri jafaitzen zuten.

Aufetik zeramaten jendetza ikaragari aren arterako oso gutxi ziran, egia. Bai sozialista bezela azaltzen ziranak ere ordea.

¡Eta artalderik aundiena zaitzeko artzai bat eta zakur bat ez al dira aski izaten! ¿Noiz ikusi dezute zuek menpeko aña agintari?

Aufetik ziran geienak, ikufin eta estandarte "gofiak" zituzten. Beren abestiak "gofiak" ziran. Eta guziak pafez ikufiten zituten gazte aiek, etzuten "¡Viva el ejército rojo!" ta "¡La bandera roja triunfará!" besterik esaten ¿Zeri par egin beraz? ¿Ez ote zan eranegungo agerkai ura ikufin gofiaren gorespena? ¿Ez ote zenun zuk, donostiar irakurle, zure kezka apufarekin ikusi ainbeste gofikeri?

—o—

Gobernadoreak itz egin die langileai.

Eta agintariaren erantzunbeafa gogoan duala itz egin ere.

"Langileak —esan diote—, zuena be"zelaxe nerea ere efiko aotsa izan da gaur arterafio.

"Afepublika ekafi degu, baña ez uste "onenbestez ase geranik, ez. Au Zuen"tasun bidean lenengo oinkada besterik "ez da. Gizarte auzietan oraindafio ba"fio egokitasun aundiagoa banatu nai "degu. Ez da ordea ontarako MALA "BATEKOAK BESTE MALA ZAPAL"TZERIK bear, elkafi begiratuaz gaur"dafio bafio zuzenago aritzea baizik."

Eta Leon XIII'gefenak, laster befogei urte dirala, nagusi ta langile arteko arazoak Jainkoaren legepean antolatzeko idatzi zituan lefo argi jakintsu aien ufutiko olartzuna ziruditen Aldasoro jaunaren itzak, txalo ta goraka artu zituzten "Esos burgueses traidores que nos atropellan" abestuaz etofitakoak.

Oek etzekitek nora dijuazen —nion nerekiko.

Eta bitartean, an atze aldetik, agian biyar txaloka ari ziran oen buru izango diranak zeuden aldotik, nagusientzat gofoto biziz jositako abestiak zetorzkigun

¡Etzioten aiei, gobernadoreak zionagatik ajolik nunbait!

—o—

Badakit aizea nora, zapiak ara ibili oi dirala.

Ta ostiralean aizea "gofi" izaki nunbait.

Baña erdiak bakafik "pin" zirala ere, jende asko zan. Eta asko oetatik, afotza ez gutxi.

Gipuzkoar piolen ikufin atzetik ogei bat lagun izango ziran, eta eusko arpegi granorik ez nuan ikusi. ¡Gipuzkoar piolak aiek!

—o—

¡Euzko langile! Ez da naikoa oien tartera ez erortzea. Gaur edo biyar zerbaiten bear arki zindezke, ta beste asko ta asko bezela norabait jo bear eta datofen urtean ezpada ufengoan ikufin gofi atzetik arkituko zaitut.

Badakit zer esango didazun. Zu etzuzela alegia nagusiakin bufukara, baña... Badakit bai, ofexegatik esaten dizut ez dala gofien tartean ez sartzea naikoa. Bai baitakit nagusiai askotan zor dutena ere indafean atera bear izaten zaiela. Ontarako norabait jo bear beraz.

Baña kontu, euzko langile, kontu. ¿Kanpotik etofi dan oferi, Gipuzkoa guzia, Euskalefi osoa irabiatuta ere zer dio? Onera etofi dan bezelaxe, beste norabait juateko bidea irikia baitauka. Bere efi ta sendi naitasuna galdu ditu askotan, ¿eta besteenak apurtuta ere zer oijuakio?

Zuk ordea zure maitasun guzia ementxe daukazu, zure efian, zure etxean. Zure senide ta guraso artean edo urbil beintzat bizi zera. Zure ta zureen zorionа, Euskalefia aberatz eta indartsu egotetik datorke. ¿Euskalefian euskaldunentzat difia izango genukela ez al derizkiozu? Eutsi beraz, euzko anaia, eutsi oneri. ¿Nola?

Euzko Langileen Alkartasuna zai daukazu. Langileak bereak dituan eskubideak aldezteko, ifioren nagusitasunik ukatu beafik ez du Alkartasun onek arkitzen. ¿Langileak poliki-poliki nagusi izatea ez ote du ba nai? Bai orixe. Baña biyar apika zeok bearko dituzuten langileak nolakoak izatea nai zenuteken begiratuaz, gaur zuek alakoxeak izateko eskatzen dizute. Nagusiai ere berak langile balira naiko lituzteken begirapenak eskatuaz ordea. ¡Nagusi-langileak elkafen etsai bezela azaltzetik alde edefa!

Euzko langilea, ifion bazkidetu, asoziatu, gabe bazaude, berealaxe Euzko Langiletara jo. Gofi artean bazabiltza bafiz, zure maitasunik maiteenak nola ankaperatzen dizkizuten ikusi, ta atozkiguzu, afen "¡Viva Rusia!" edo "Viva la Internacional"eri "¡Gora Euzkadi!" rik bulartsuenakin erantzun.

—o—

¡Gerok zaitzen ezpadegu ez digu ifiork gure efirik zaituko!

Euzko ikufiña ta... Badakizute, lenengo egun artan Udaletxean "gure" ikufiña jafi zigutela. Gu zoratze, geunden, egia esatera. Baña... atzo, edozein "eregeren" mendean bezelaxe, "españar" ikufiña ta "donostiafa" bakarbakafik ikusi genitun: ¿euzko-ikufifik? ifion ez.

¡Gerok zaitzen ezpadegu, oiek ekafiko zigutek guk nai deguna! Itza bat eta...

—o—

"Queremos pan o trabajo" —zion komunisten "kartel" aietako batek.

—Aizak, ¿noiz etofi itzan onera? ¿zergatik etofi itzan?

—.....

—¡A! ¿Ire efian lanik etzegolako ta emen lana ukan garaian etofi itzan beraz? ¿Eta orain zer dala ta eskatzen dek emen ogia?

Lanik ezpaziok, ua atzera ire efira, beste nunbait lanik arkitzen ezpadek beintzat. Zor izatekotan antxe zor ditek ogia. Guk gere efitafakin naiko lan izango diagu

Nork bereak zaitu bitza aufena. Andik auferakoak gerorako utzita.

—o—

Biyar arte.

EUSKO

**Dr. VIDARTE**

Sistemas nerviosos y mentales. Gabinete electroterapéutico. De 10 a 12 y 2 a 4

## Pizkundia

**Gazteiz'ko "Seminarium"go Kardaberatz'tafei.**

Oraintxe artu dut apaizgaiak egin duzuten jai croigafiaren agerkaia. ¡Txalo! Uste dut ofenbeste lan artuta ixilixilik eta afo-puztu gabe antolatu duzuten jai-aztafiuak emango dizkigutzutela ofi-alde berexi ontan. ¡Zeñen eder den zarata gabeko lan egitia! Guk ikas-lanetan zerbait eratzen badugu, izkanbila eta deadafa ugari, eta batzubatzutan den baño geyo esan ere bai, eta zuen arteko erakus-aldi mardula ixilik joan zaigu: egiya da bai gizona zenbat eta jakintsuago ainbat eta apalago dela.

Apaizgaitasuna atzerapena dela esan izan dute eta apaizen jakinduria eztela gaurko gizartean sartzeko gai. ¡A zenbat eta jakintsuago orduan eta apalago! eta ori ezin eraman dute, afo-tental oiek. ¡Min ematen diyote jakintsu nagusi oieri apaiz-gai gazte batek "Ortega y Gasset" bati Gazteiz'tik bere ortzak erakustea esanaz: "Así pues, el vicio central de la criteriología del señor Ortega" eta abar.

Jafai ofela eta Ofia eta Gazteiz eta Lekaroz'ko etxe aundietan ofela lan egiten dela Euzkadi (gaur ez da ifior izutzen itz onekin) sendotuko da.

Ona emen agerkaia:

**"ZUBIGAR OLERKARIA**

Bere eriotzaren urtebetetzean Gazteizko Seminarium'go Kardaberatz'tafak. Gazteiz'en, 1931—IV—27'an.

AGERIA

"Itz bi", Sarasua'tar M.'k.

"Uxo txuria" (iru abotsetara). Mitxelena'tar A.'rena.

"Zubigar olerkaria" (itzaldia), Agife'tar K.'k.

I Safera. II Olerkaria. — Olerki zafak. —. Bertsolariak. — Idatz-elertiaren beafa gure artean. — Pizkundea. III "Zubigar". Bere lana. — Gaiak: a) izadia, g) Jaungoikoa, k) biozkadak, d) Euskerea. — Olerkien jazkera: adiak (estrofas), neurtitzak, bukaeren berdintasuna (rima). — Irudimena. — Irudigaiak. IV Bukaera. — Eutsi eleari!

**Eredu batzuek.**

"Udazkena", Loizate'tar J.'k.

"Gaxoa". Esnaola'tar S.'k.

"Lo-artzo goxoa", Garamendi'tar A.'k.

"Oinaze dut", Zuduaga'tar E.'k.

**Bukatzeko.**

"Goazen mendirik mendi" (iru abotsetara), Mitxelena'tar A.'rena.

"Zubigar" (Loidi'tar P.'ren olerkia). Amutxategi'tar A.'k."

"¡Eutsi eleari!" Ori da itzaldiaren azken aria Bai, eta era ortara agertuko duzute ez dela egia aspaldiko apaizen aurka zabaldutako lausoa.

Euskeraren etsaik iru izan dirala eta aitatik bat apaiza. Azpiratu duzute aspaldian zuen lan eta argitasun bidez gaiai bateko gezur biribila. Euskelefiak eta euzko idaz-ertiak agindu lezarken pitxi aberatzenak apaizen burutik sortu-beafak izango dira. Ez esan neri Domingo Agife'n irakurgaiak nolapaitekoak dirala. Asi orduko pafapafa datozte apaiz-euzko langilien izenak: Manterola, Lafamendi, "Axular", "Oxobi", Pierre Landhe eta ifiork sinistu ez lezaken Azkue'n "Morfología vasca" zakona. beste efi-jakintza, "sorgin" "lamiak" eta eres-gai-itzaldi eta argitasun itufiak; Barandiaren "Estudio de Paleontología y Paleografía vasca" eta Manuel Lekuona'ren olerki almena eta euzko bizierari dagozkion bete-beteko aztafiak afigafiak; Aita Donosti, Intza, Arbelaiz; Zabala Eguzkitza eta Zamafiparen lanketak, apaizen izena guzien gañetik erabiltzen dute.

¿A ta "eutzi eleari" esan duzu? Bai, elea da Euzkadi'ren zañondoa, elea da gure bizia. elea da gure jatofia, elea da gure ezaugafi eta zoriona: euskera gabe utsak gera, euskera gabe ez gera euskotafak, euskera galdu ezkero gure eskubide eta lege-zafak indar gutxi dute. Baño euskera dugularik gure abefia ifiork ez du jango; eta ala ere badagokio batzueri euskera beafen beafenekoa izan ta "Jaungoiko" elburu ofekin ziaka-mizka ibiltzera... ¿"Jaungoiko" ori apaizen jantzi ertzetik ibiltzea dala uste al dute? Obe zuten euskerari obeto begiratu eta txanpon batzuen gora beragatik elburu aintzakitan muturka asi ez balira. ¡Euskera, euskera, "¡eutzi euskerari!"

T. GARBIZU (Tege).

URKIOLA'KO ELIZAN

## Padua'ko Antonio Donearen gorapenez Eun-urteurrengo jaiak

Padua'ko Antonio Donearen eriotzako zazpigafen eun-urtebetean Urkiola'n egingo diran Eliz-jaietara deituaz, Neronek aginduta bildu dan Batzak, egin duan Deia Neurekotzat artzen det.

Batza au Bizkaya, Gipuzkoa ta Araba'ko ordezkariak eratu ta osatzen dute, ongi dakiguna da, bada, naiz Araba'n, naiz Bizkaya'n eta naiz Gipuzkoa'n zaletasun aundia dagola Santuario onetarako, ta iru probintzi anaietan eranetaraño sartua dagola Santu Mirarigile onentzako jaiera ta zaletasuna gogatsua.

Itza emana daukat zazpigafen Urtebetetze ofen elizkizun nagusitara joan eta beraietan izateko, ta Jaungoikoak lagun, Garagafila'ren 13'an betetzen dan Santuaren jaiegunean Neronek egingo det euskeraz Meza nagusiko elizitzaldia; itxaroten det, eta gogorik bizienaz gura det, beste urtetan gizatalde izugafi aundi ta oparoak jean oi bazerate ere, aurten lengo neufiz gain eta beste urtealditan baño ere geiago joango zeratela Urkiola'ko mendi santu ta kondairatsu artara, gure Jaun eta Jaungoikoak, Abad eta Padua'ko Antonio Santu bedeinkatuen bitartez beren jaiegunen onerako ta alde, ainbeste ta ainbeste mirari bakan, afigafi ta berezi egiten dituan leku santu ta miraritsu artara.

Eta Santuario ain aipatu ta sonatu onen befi itzegiteko egokiera etofi zaidan ezkero, ez det ixilik igaro nai aspalditik zabalduak dauden befi nastu ta bidegabe batzuen gaian zerbait esan gabe, alegia testiguak esan didatenez, badira esan eta zabaldu dutenak, Nere aufeko Gotzai jaun Fernandez'en Pierola'tar Eramun'ek orain ogeta amaika urte dirala, Urkiola mendian Eliz befibikain bat egiteko lenengo afia jafi ondoren, bera jasotzeko bildu diran limosna asko beste eginkizun batzuetan zabaldu ta eralki dirala; egiaren izpirik eta antzik ere ez duten esakizun auek gizon jakitunetan gaitzik ezin egin badute ere, kristau lau ta gutxi-jakifietan egin lezakete ta egin dute noski, San Antonio'ren izenean eliz eder ura jasotzeko limosna emango zuten beren jaieradun asko limosna ori ematetik atzeratuaz, berak emango zuten laguntza ori beste eginkizun batzuetan eralki ta zabalduko zala uste izanik.

Ofegatik, bada, garbi ta agiri-agirian aitortzea erabaki det:

Lenengo: Ez duala egiaren aztefen txikienik ere asmatu duten esan ofek, au da, ez dala egia Urkiola mendian Eliza befia jasotzeko artu diran limosnetatik egundaño ezertxo ere eralki danik, ez Gazteiz'ko katedral befia jasotzeko ta ain gutxi Seminario edo Apaizgaidi Befiko lanetarako ere.

Bigafen: Orobat, ez dala egia bein edo bein, Santuaren jaieradun gizon aberatsik eskefii danik, bere diruz Eliza edo Eliza'ren zati bat egin nairik eta gañera ofelako eskeintzarik ontzat artu ez danik, efiaren diruz jasotako Eliza izatea nai dala edo beste edozein onelako aitzaki jafirik; ez da, bada, orain arte ofelako itz eta eskeintzarik izan, eta ez dute besterik nai Eliza aundi ofen jasoeran arduratuaz dabiltzan guztiak, lenbaitlen burutu ta amaitua ikustea baño. Neuri dagokitanez, garbi aitortzen det pena aundia eman didala Santuario ura ikustatzera joan naizen bakoitzean ain nekez lan aiek auferatzen ikusteak, azkafago aufera eramateko zerekin ez dagolako ta Neuk ere Seminario Befiaren zor aundia garbitzen ekifiean nabilelarik, lanbide ofetarako nai bezin diru laguntza aundirik ezin eman diotalako.

Elizetako pafoko, efetore ta apaiz agurgafiak irakufi bezaiote kristau efiari eskutitz au nere aitorpen auekin eta onen ufena jartzeko agintzen degun Deia.

Gazteiz 1931'ko Jofaila'ren 10'an emana.

+ MATEO, Gazteiz'ko Gotzaia.

## Itziaz'ako bidezcundeatzaz

Ez det besterik egin EL DIA'ren Euskal Ofia'ri begira jartzean "Maria'ren Alaba bat"ek, dasana irakurtea. Afua'tik dator berau. ¡Ofen asefea!

Ez dakit zer arkitu duan neskatxa oiek Deba'ko Maria'ren Alabak Itziar'ko bidezkundera deituaz, efietara bidaldu ditugun, ofietan, beintzat onela dasa: "Ofi ori ondo ondo irakufi, obetuago aztertu eta gero bakoitzak bere iritzia eman beraz. ¿Ongi aldago?"

Bai emakumea ondo-ondo irakufi, obetuago aztertu. Ara besten zer esaten degun:

"Deba'ko Maria'ren Alaben Bazkunak eliz nagusi ontako bere iraspenaren befogeita-amargafen urtebetetzea ospatu nairik, eta Maria'ren Jaungoikozko Amatasuna ziñeskaitzat erabaki zan amaboskafen eun-urtebetetzea jai aundiz ospatzeko gure Gotzai jaunak egin duan deyari erantzunaz, Itziar'ko Andre Mari'gana bidezkunde bat egitea erabaki du, onetarako Euskalefiko beste Maria'ren Alaben bazkunai ere dei egiñaz.

Ziñezkai onen eun-urtebetetzea au Andre Maria'ri oneraspen berezia zayon elizetara bidezkundeak egiñaz ospatzea da gure Gotzai maitearen naya; ta Euskalefian Itziar'ko Ama'ganako oneraspena antziña-antziñakoa da ta iñola ere Bera ikutzeko asmo au oso ondo artua izango da.

Onetarako erabaki dan eguna Ofila'ren 10'gafena, ta

**Egikizunak:**

Goizeko bederatziterdietan ibilideuna Neskutzaren irudi ta efietako ikufiñazin, "Agur, agur Maria, Sortzez garbia" abestuaz.

Amafetan Meza nagusa "Angelis" deritzana abestuaz Deba'ko Bazkunaren Zuzendari izandako ta orain Beasain'go txaumburu dan Aspe'tar Florenzio jaunak itzaldia duala.

Ondoren Andre Mari'ren txakitik igarotzia. Afatsaldeko iruretan bezperak "Magnificat" nagusiaz, baita itzaldi laburtxo bat ere".

Auxe da ondo aztertu bear dan ofian Deba'kuak dasaguna; ba uste gendun, eta uste degu bidezkunde bat eratzean Elizaren eta Gotzai jaunen asmoak lenen gogoan euki bear diranak dirala.

Itziar'ko Ama Kantauriko Zaindaritzat burestuntzea ez dabilgu orraintzetik geure asmoetan, eta ez gaude asmo oyek utzitzeko ere.

Laistafak etzuten beren bidezkundea Ama ori bureztuntzeko asmoetan bakafik eretu, ta bai bidezkunde egun arian asmo ori artu. Guk ere beste ofenbeste egin genezakegu.

Gañera ayen eguna garai baten zang eta gurea... beste baten. ¿Entzun?

¡Euruko mifiik asko eman digu ba epuna aukeratzeak ere! Ta orain ori ere egokia ez degula, ¿Azpeiti'n mixio-jaya dala? ta ¿zer?

Azpeitikoentzat ez da ondo etofiko, baña Afua, Zestua, Aizarna ta Azkoitirentzat? Gauza bat da Azpeiti'ko mixio-jaya, beste bat Itziar'ko Ama'gana bidezkundea Maria'ren Alabentzat.

"Neska idazle guztiak beartuak gaude nai degula ta nai ez degula bakoitzak gure iritzia ematera."

Afen ez gaitezen asi gu ere eztabaidan, eta bai egin al deguna egin, ofela idazleok etofi zaitezte zeben asmoekin.

Egunik ere ezin genezake aldatu ba Erriko agintarien baimena egun ofetarako eman zaigu, ta aldatzeak lan txafak ditu. Gañera egun bat gaizki ba'dator alde batekoentzat, bestea gaizkiago bestekoentzat. Guzientzat ondo datofen egunik ezin genezake asmatu.

TENE

## Zarautz

**¡Itziar'era!**

Azkenengo Maria'ren alaba izanik (¿ez al da ala Katalina?) ixilik egotia erapakiya neukan; baña "Irubelafa" begikoaren dei atsegingafiya entzun ondoren... azaldu egin bear eta pozik gañera gure berotasun pixka edo iritzi apala azalduaz.

Donostia'ko batzar artan ez gifian izan; baña bertako buru edo zuzendari A. Agife agurgafia izan zenduten ezkero, orduan bezelaxe bera zuzendari degula batu gindezke andereño euskelidazle guztiak, "Tene" aufena degula batzar aundi onurakor bat egiñaz Itziar'ko Ama maitiaren oñetan. Eta otoi egingo degu sutsu, biotzez gure Euskal-efiaren alde iritxi dezan berialaxe, garai egoki onetan, bere eskubideak oso-osorik.

Guazen ba, Itziar'era Maria'ren alaba gaztiak otoi egitera eskatuaz Zeruko Amari itxaropenez bete-beterik gure efiaren zorionak.

D. Z.

## Albiztur

**Mariaren seme eta alaba geranok.**

Jesusen eta gure Ama dan Andre Mariari eskaindua dagon Loreila'ko egun guztietan izango ditugun elizkizun edefetara, al-degun guztiok gogotsu eta zintzo joan gaitezen afen.

Ifioiz baño zeruko laguntzaren beartasun edo premi aundigoak ditugun aldi ontan otoi sutsuak guztiok Elizan egiñaz, bear ditugun indar eta laguntzak Maria'ri eskatzera.

Zure laguntza beafa zaigu
Maria guztiz garbia,
eta maite ofek zure itzalpean
gorde, ba, Euskalefia.
Sendalariena jean oi dan eran
gaixo dagoen eria.
Zure oñetara apalki gatoz
utzirik afokeria.

**Euskalefiko katoliko guztiok batu bear genuke.**

Euskaldun denok anai geranez
lenbailen batu gaitezen,
eta orduan bear deguna
asi Madrid'a eskatzen.
Batasun gabe alperik gabiltz
ez degu ezer iristen,
batu-ta beriz, nere ustez beintzat,
ez dek efaza gu austen.

LUISTAR

**Dr. Olaran**

MENTALES - NERVIOSAS
Director de la Casa de Salud de señoras de Santa Agueda
Consulta: lunes, miércoles y viernes, de 10 a 12 y 3 a 5
ANDIA, 2, 2.° :-: Teléfono 1-44-77



**COMPAÑIA TRASMEDITERRANEA**

BARCELONA: Vía Layetana, 2 - MADRID: Plaza de las Cortes, 6

Servicios regulares de vapores correos y comerciales entre los principales puertos de la Península, Baleares, Canarias, Norte Africa, Franciae Inglaterra

**Servicio quincenal Pasajes–Canarias**

15 Mayo, vapor Escolano

**Servicio regular semanal de cabotaje**

CON SALIDAS FIJAS DESDE PASAJES, ADMITIENDO CARGA PARA BILBAO, SANTANDER, GIJON, CORUÑA, VILLAGARCIA, VIGO, SEVILLA, CADIZ, HUELVA, CEUTA, MELILLA, ALMERIA, CARTAGENA, ALICANTE, VALENCIA, BARCELONA E ISLAS CANARIAS.

11 Mayo, Río Segres

PARA INFORMES DE FLETES, CABIDA, PASAJE, ETC., DIRIGIRSE A SUS CONSIGNATARIOS

**Hijos de F. Azqueta. — Pasajes**

EZTARRI SUDUR BELARRIETAKO miñak sendatzeko

**Dr. Jesús M. Olarreaga**

CORREO, 50, 1.° . TOLOSA
Goizean, 10'etatik ordu 1'era
Arratsaldean, 3'etatik 7'etara